

Garai ilunetako euskararen ortzimuga

Mende laurdena beteko da gaur Elbira Zipitria hil zenetik. Irakaslea ezagutu zutenek diote euskara salbatzeko berebiziko lana egin zuela frankismo garaian, eta hori izan zela bere izatearen arrazoia.

EEKAIN ROJO
Donostia

Donostiako Parte Zaharreko Fermin Kalbeton kalean zuen etxean euskarazko eskolak eman zizkien Elbira Zipitriak (Zumaia, 1906, Donostia, 1982) bost eta zortzi urte arteko umeei 20 urtean. Oritzapen txarreko aroa da euskararentzat, debeku garaia zen Hegoaldean, eta hizkuntzaren ospea maldan behera zihoan hiztunen artean ere. Dena den, Elbira Zipitria andereñoa euskararen aldeko lanari lotu zitzaion. «Horretarako bizi zen», azaldu du Maria Jesus Otaegik. «Bere izatearen zentzua hori zen», gehitu du Lourdes Muñoz alabak eta Zipitriaren ikasleak.

36ko gerra aurretik Donostiako Muñoatzen ikastolan irakasle lanetan aritu zen, guda hortek Sarako (Lapurdi) erbestera bultzatu zuten arte. 1942 urtean itzuli zen Donostiara, eta behinola hasitako euskararen aldeko bidea aberasteko helburu irmoarekin. Etxez etxe hasi zen eskolak ematen, Frantziatik eta Herrialde Katalanetatik hartutako irakaskuntza metodologia berritzaileetan oinarrituta. Etxeko ikastolen esperientziaren abiapuntuaz.

Donostian ezagun egin ahala, besteren etxeetara joan beharrean, gurasoek Zipitriaren etxera eramaten zituzten seme-alabak, euskarazko irakaskuntzan barneratzeko irrikarekin. Hori dela eta, etxeko egongela atondu behar izan zuen ezkutuko ikastola izan zedin. Lurrean, borobilean eserita, eduki «apartak» lantzen zituzten, Muñozen gomutari jarraiki: «Gazteleaz ere zer azterketa sintaktiko egiten genituen, uneoro zentzuaren bila,



Ezkerretik eskuinera, Lourdes Muñoz, Maria Jesus Otaegi eta Kontxi Beitia, Elbira Zipitriaren adiskideak. JUAN CARLOS RUIZ / ARCAZKI PRESS

umearen ulergarritasuna gerturatz, kontzeptu horiek oso modernoak dira». Muñozen arabera, jasotako irakaspenen mailaren lekuko, Zipitriaren ikasle batzuk ikasturteko onenetakoak ziren ohiko ikastetxe zurruntara aldatzean.

«Oso irakaskuntza aurreratua zuen, garai hartako eskolekin aldea oso handia zen», azaldu du Muñozek. Matematiketan aritzeko zotzak eta puxtarriak erabiltzen zituen, eta gazteleaz Antonio Machadoren poesia lantzen zuen haurrekin, garai hartako hezkuntza ereduan gaizki ikusitako poeta. Ostegunero Urgull mendira eramaten zituen ikasleak, hurbil zeuden mendiak, hasieran, eta urrutira antzeman zitezkeenak, ondoren, zeintzuk ziren ikaslarazteko. Bitartean, garaiko ohiko ikastetxetan urrutiko lurraldeak zituzten hizpide, Espainiako ibai eta mendi-lerroak batez ere.

«Emakume aparta zen, euskara maite zuen, ahalegin guztiak egin zituen bizitza osoan, eta hari esker daukagu, nire ustez, euskara dagoen egoeran». Miresmena darie Otaegiren hitzoi. Hiru mintzaideak bat datoz euskararen aldeko ekintzaile izateaz gain, Zipitria euskaltzalea, abertzalea eta kristau fededun gisa agertzean. Horrela, arratsalde denetan haurren gurasoak etxera gonbidatzen zituen, ordubetean besteren artean Euskal Herriaren historian sakontzeko.

Ikastorduen iraupenetik harago eta bizimodu ateratzeko ogibidea baino gehiago, euskararen irakas-

kuntza bere bizia zentzua ematen ziona dela adierazi dute. Muñozen hitzetan, adibidez, «horrelako lana egiteko pertsona berezia izan behar da, ez da ordutegia duen lan bat, emate bat da, izatearen zentzua da, eta benetan oinarritzko pertsona izan zen garai hartan».

Ikasleekin batera, haren ondoan euskarazko irakasle bilakatu nahi

zuten irakasletza ikasleak gerturatu ohi ziren praktikak egitera, geroiko ikastolen hazia ere in zuten irakasle berriak. Kontxi Beitia da horietako bat, Pasaia Ikastolaren sustatzailea. «Ez dizut erakutsiko zuretzat soilik, baizik eta Euskal Herrian zabaltzeko niregandik ikasi duzuna». Zipitriak irakasle gazteei emandako mezua da Beitia-aren ahotan. Irakasletza ikasketak amaitu ez zituztenak baztertu egiten zituen sarri, «denbora-pasa egingo zuten beldur». Bere irakaspenak jasotzen zituztenek ikastola berriak sortuz bere lanarekin jarraitzea nahi zuen oroiz gain.

25 URTE GEROAGO. Gaur mende laurdena beteko da Zipitria Donostian hilzela. «Denbora igaro ahala, uste dut geroz eta handiagoa egiten ari zaigula bere ekarpena», zehaztu du Beitia urtemugaren harira, eta harekin bat datoz beste bi mintzaideak ere. «Euskaraz jendeari erakusteko eta alfabetatzeko nor-nori-norkeredu ospetsu hori berak sortu zuen, eta horretaz apenas esaten den ezer», erantsi du.

Lazkaoko beneditarrekin ikerketa lan mardula egin zuela nabarmendu du Beitia. Garaiko euskaltzaleekin lotura handia izan zuen, Joxe Migel Barandiaranekin, Telesforo Monzonekin eta Nemesio Etxanizekin, esaterako. Bestalde, bere ikasleen artean izan ziren, adibidez, Joxemi Zumalabe eta Koruko Aizarna. «Goraipatzekoa da egin zuen transmisio lana, nola prestatu zituen atzetik zeto-

zen irakasleak; bestela, harekin amaituko zen».

Beitiak dioenez, «pertsona hau beharrezkoa zen, beste norbait izan zitekeen, baina beste norbait hori ez zen azaldu». Zipitriaren itzalari buruz batasun handia dago, garai zail batean euskarazko irakaskuntzari eman zion susperraldiari dagokionez. Hala berretsi du Arantxa Urbeke ere, *Ilunetik argira* Elbira Zipitriaren bizitza eta uztari buruzko liburuaren egileetako batek ere: «Euskararen iraupenerako eta irakaskuntzarako funtsezkoa izan zen, hor adostasun handia dago».

1960ko hamarkadaren aitzinean gizartean piztu zen aro berriak urte zailak ekarri zituen Zipitriarentzat. «Batera etorri ziren aldaketa guztiak, legalizazioa, euskara batua», azaldu du Beitia, eta zahartzaroen murgildu zen irakasleak ez zituen aldaketak gustuko; «euskara batuarekin ikaragarri sufritu zuen». 1960ko hamarkada amaieran ikastolak legezatu zirenean, Orixe ikastola sortu zuen Donostian beste hiru irakasleekin. «Bere gela maitetik alde eginda beste mundu bat zen hori», dio Otaegik.

Urberen ustez, «izaera hermetikoa zuen, oso gogorra zen jendearekin, gizonezkoekin batez ere, baina, halere, jendeak maitatu egiten zuen». Ramon Labaienek omendu egin nahi izan zuen Donostiako alkate zela, eta Zipitriak gonbitari uko egin zion. «Bere ondoan bizi ginenok ikaragarri maite eta mires-ten genuen», zehaztu du Beitia.



Elbira Zipitria irakaslea. ILUNETIK ARGIRA
ELBIRA ZIPITRIA LIBURUKO IRUDIA

Euskarazko irakaskuntzan zubibidea egin zuen 36ko gerra aurreko garaia eta ikastolen loraldiaren artean

Irakasle zurruna, abertzalea eta fededuna zen, eta berak ikasleei irakatsitakoa eurek gero zabaltzea zuen helburu



BERANGOKO UDALA

IRAGARKIA

Udalbatza Osoak, 2007ko azaroaren 29an egindako ohiko bilkuran, Berangoko Plangintzako Arau Subsidiarioen aldeketa puntualari hasierako onarpena ematea onartu du. DC-4 Sistema Orokorri eta Lantzarako Egikaritze Unitateko C Orubearen dagokienean.

Irargaki hau "Bizkaiko Aldizkari Ofizialean" argitaratzen den bihararmunetik zenbatu beharreko bi (2) hilabeteko epean azalduko da jenduraren esandako espedienteak, epe horren barruan aztertuta eta egokitzat jotzen diren alegazioak aurkeztu ahal izateko.

Berangon, 2007ko abenduaren 20an, Alkatea, Maria Isabel Landa Gaubeka.